

# HERRITAR BERRIAK: AUKERA ETA ERRONKA BERRIAK

ERRAMUN OSA

**S**aso batean, ikasmaterialen edota hedabideen bitartez, munduan bestelako koloreak eta kulturak bazirela antzematen genuen, baina ez zen ohikoa gure auzo-herrietan errealtitate hori zuzenean ikusaraztea, bereziki, herri ertain eta txikietan. Ikuspegi hori, ordea, zabaldu egin beharko genuke. Iraganean, askotariko arrazoiengatik, europar herritarrak, tartean gure erkideak, munduan barrena barreiatu ziren eta, Europan ziren erlijio borroketatik, txirotasunetik, bai eta jazarpen politiko edo itolarri sozialtatik ere ihesi. Sasoi bateko europarrek ibilbide hori egin zuten askatasunaren eta bizi oparoago baten bila edota familia egitasmo bat garatzeko asmoz. Orain, arrazoi berberak tarteko, bestelako lurralteetatik gure arera hurreratzen zaizkigunean, gogoan izan beharko genuke iragan hori, gu ere munduan ibili ginela, hain zuzen, inor baztertzeko eta mehatxu gisa hartzeko joera oro alboratuta.

Aspaldi adierazia dute Europako erakunde ugarik, intolerantziari aurre egiteko, Europako zein gainerako lurraldeen arteko herritarra elkar ezagutzea, kultura eta hizkuntza desberdinetara, errealtitate desberdinetara hurreratzea garrantzitsua dela. Arrazoi beragatik du Europak “Anitzasunean bat eginik” leloa. Hortaz, gure arera etortzen direnak aukera gisa hartu beharko genituzke, gizartea ehuntzeko, askotarikoagoa egiteko, ikusmira zabaltzeko, tolerantzia lantzeko, bai eta gizartearren aurrerabidean urrats erabakigarriak egiteko ere.

Gure Herria askotarikoa da, jatorriz, pentsaeraz, kulturaz eta hizkuntzaz antzak diren herritarrez osatua... Eta Herri honek baditu aldagai batzuk, landu eta belaunez belaun ondokotasun utzi nahi direnak, gure hizkuntza, euskara, tartean dela. Horrela, Sabino Arana Fundazioak eta Euskaltzaindiak azken urteetako lankidetza-bideari segida emanez, “Immigrazioa eta euskara: ikuspegi berri baten beharraz” izenburuko mintegia antolatu zuten joan den urtean, abenduaren 12an. Mintegiaren helburua iritziak, egitasmoak, esperientziak eta errealtitateak partekatzea izan zen, betiere, gure arera etorrakoak, haien izaerari eutsiz eta garatuz, asimilatzea baino integratzea helburutzat dutenak.

Ale honetan, aipaturiko mintegian azaldutakoak labur-zurrean jaso eta beste aditu batzuen hausnarketak ere jaso dira, betiere, gaiaren inguruan, gizartean ezagutza zabaltzeko eta askotariko iritziak partekatzeko ekarpena egitea bilatutik. Edozein gisaz, hausnarketa horren inguruabarrean, badugu bide esanguratsua eginkizun, gure ikuspegiaz landa, etorri beriek gurekiko duten ikuspegiarekin alderatzea bilatzen duena, antzematen dituzten zaitasunak zein bestelakoak hurbiletiak jasoz eta, hartara, bi ikuspegiokin, denok elkar hartuta, sintetizatzeko ahalegina eginez. Norabide horretan egin behar ditugu urratsak etorkizunean, Fundazioaren leloa gogoan eta bera zertxobait moldatz, atzokoan finikatu behar baitugu gaurko eta biharko euskal gizartearren geroa, etengabe berritzen eta gaurkotzen den gizarte berri eta berritzaile batean.

# **PERSONAS INMIGRANTES: NUEVAS OPORTUNIDADES Y RETOS**

**H**ubo un tiempo en el que sabíamos de la existencia de otros colores y culturas en el mundo, principalmente, a través de los materiales escolares y la televisión, pero no era habitual visualizar esa realidad en nuestros barrios y pueblos, especialmente en los más pequeños. En cualquier caso, del mismo modo que los ciudadanos europeos se dispersaron por el mundo a causa de un sinfín de razones, también se acercan hasta nosotros hoy en día un gran número de personas desde otros muchos territorios por iguales o parecidos motivos.

En lo relativo a Europa, hace tiempo que numerosas instituciones del llamado viejo continente han manifestado que, para combatir la intolerancia, es importante el conocimiento mutuo de la ciudadanía europea y el de las personas que hoy en día habitan Europa y con las que vienen desde otros lugares, así como el acercamiento a las diferentes culturas y lenguas, a las diferentes realidades sociales. Por esa misma razón, Europa utiliza el lema “Unida en la diversidad” desde el año 2000. Atendiendo a ese lema, deberíamos considerar a esas personas que conviven con nosotros como una buena oportunidad para tejer una sociedad más cercana, más tolerante, abierta al mundo, una sociedad más empática y vertebrada.

Es una evidencia que, hoy por hoy, nuestro País es plural y que está conformado por ciudadanos y ciudadanas de diversos orígenes, pensamientos, culturas y lenguas... Pero también tiene unas características propias que desea preservar y transmitir de generación en generación, entre ellas, nuestra lengua, el euskera. Así, la Fundación Sabino Arana y Euskaltzaindia, en la senda de la colaboración mantenida por ambas instituciones durante los últimos años, organizaron el pasado 12 de diciembre el seminario titulado “Inmigración y euskera: sobre la necesidad de un nuevo enfoque”, con el objetivo de intercambiar opiniones, reflexiones y perspectivas acerca de la relaciones entre las personas migrantes y el euskera.

Este número recoge un resumen de las ponencias expuestas en aquel seminario y, además, se complementa con las ideas de otros expertos en esta cuestión, tan de actualidad en el contexto europeo y mundial. En cualquier caso, tenemos un camino, aún hoy, por recorrer, el testear la opinión que les suscita nuestra sociedad, el recabar propuestas, necesidades y retos que nos plantea la propia población migrante. Solo así podremos intentar elaborar entre todos una síntesis que nos ayude en la difícil tarea de construir una sociedad más abierta, más libre, más tolerante, una sociedad cambiante, que a su vez se renueva continuamente y que se asienta en nuevos valores.